

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1871

264/2022 EBAZPENA, martxoaren 24koa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Miren Amaia Ruiz Etxebarría andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarriz.

Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 7ko 231/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko ESiko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa bidez (2021eko irailaren 28ko EHAA 194 zk. eta 2021eko urriaren 5eko BOE 238 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Miren Amaia Ruiz Etxebarría andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko ESiko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Miren Amaia Ruiz Etxebarría andrea izendatzea Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko ESiko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta luzatzeko aukera egongo da, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat. Izendapenak 2022ko martxoaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Bilbao-Basurtoko ESleri.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2022ko martxoaren 24a.

Barakaldo-Sestaoko ESiko zuzendari-gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.